



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **UDALAREN OSOKO BILKURA** **2007ko uztailaren 12ko aparteko bilera**

### **BERTARATU DIRENAK:**

#### **ALKATE-UDALBURUA**

EAJ-PNV.- ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jn.

#### **ZINEGOTZIAK**

EAJ-PNV.- JESUS BILBAO CURIEL jn.  
EAJ-PNV.- AINARA URBIETA BERGARA and.  
EAJ-PNV.- BEATRIZ RESA BARDECI and.  
EAJ-PNV.- IÑAKI GOIKOETXEA GORDO jn.  
EAJ-PNV.- M<sup>a</sup> CARMEN URBIETA GONZALEZ and.  
EAJ-PNV.- JON LOIZAGA CAYERO jn.  
EAJ-PNV.- JON PELI LAZKANO ALZAGA jn.  
EAJ-PNV.- JUAN CARLOS IBARRA ARETXABALETA jn.  
EAJ-PNV.- AINARA GUZMÁN URRUTIA and.  
PSE-EE.- JOSÉ M. TOLEDO CAÑAMERO jn.  
PSE-EE.- ELSA LOPEZ DE TORRE CAMPO and.  
PSE-EE.- LUIS MARIA PEREZ PEREZ jn.  
PSE-EE.- PILAR GRADOS GARCIA and.  
PSE-EE.- J. ALFONSO LOPEZ AREVALILLO jn.  
PSE-EE.- NEKANE JIMÉNEZ FERNANDEZ and.  
PP.- XABIER OLABARRIETA ARNAIZ jn.  
PP.- ARTURO ALDECOA RUIZ jn.  
PP.- FERNANDO PINTO PALACIOS jn.  
EB-B.- DANIEL HERRERA TORRECILLA jn.  
EB-B.- ISABEL GARCÍA GARCÍA and.

#### **EUSKARA ITZULTZAILEA**

XABIER PAYA jn.

#### **KONTU-HARTZAILEA**

EIDER SARRIÁ GUTIERREZ and.

#### **IDAZKARIA**

M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARANGÜENA and.

Leioako udaletxean, bi mila eta zazpiko uztailaren hamabiko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar direla, elizate honetako udalaren osoko bilkura bildu da aparteko bilera egiteko. **Alkate-udalburua, ENEKO ARRUEBARRENA ELIZONDO jauna** izan da bileraren burua eta **idazkariak, M<sup>a</sup> VICTORIA ERKIAGA ARANGÜENA andreak**, lagundu dio. Haiekin batera, orriaren ertzean agertzen diren zinegotziek parte hartu dute bileran eta egintza zein eskubidez Udalbatza osatzen duten kideen legezko gehiengoa osatzen dute. Alkate-udalburu jaunak aurretik egin die ohiko bileran parte hartzeko deia, guztia Toki Araubidearen oinarriak arautu dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 46.1 artikuluan ezarritakoa, aipatutako legearen 21.1.c) artikuluan azaldutakoa eta azaroaren 28ko 2.568/1986 Errege Dekretuak onetsi duen Tokiko Udalbatzen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko araudiaren 41.4 eta 80.1 artikuluetan xedatutakoa oinarritzat hartuta.

Adierazitako orduan eta lehenengo deialdian, Udalburutzak ekitaldia irekitzat jo du; jarraian, aparteko bilera honetako eguneko aztergaien zerrendan agertzen diren gaiak aztertu dituzte:

**1.- 2007ko EKAINAREN 16an EGINDAKO LEIOAKO UDAL BERRIA ERATZEKO BILERAREN AKTA ONESTEA:** 2007ko ekainaren 16an Udala eratzeko bileraren aktaren berri eman eta udalaren osoko bilkurak onesteko ipini da.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak, **aho batez onetsi du** 2007ko ekainaren 16an egindako Udala eratzeko bileraren akta.

**2.- ARTURO ALDECOA RUIZ JAUNA PPko ZINEGOTZI KARGUAZ JABETZEA:** 2007ko ekainaren 16an Leioako Udala eratzeko egin zen bileran hogeitazazpi zinegotzi jabetu ziren euren karguaz, eta PPko Arturo Aldecoa Ruiz falta da bere karguaz jabetzeko.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Aipatutako zinegotziak bere nortasuna egiaztatu du, Hauteskunde Batzordeak emandako egiaztatutuna Udal idazkariari aurkeztuz. Era berean, bateraezintasun arrazoen, jardueren eta ondare ondasunen aitortpena ere sinatu du, Udalbatzako kideen Interes Erregistroetan inskribatzeko.

Hauteskundearen Araubide Orokorri buruzko Lege Organikoaren 108-8 artikulua arabera, karguaz jabetzen den momentuan eta bere kargua guztiz hartzeko, hautatutako hautagaiak Konstituzioa onartzen duela zin egin edo hitzeman beharko du.

Horretarako, alkate-udalburuak legez ezarrita dagoen zin egin edo hitzemandeko formula irakurri du, 1979ko apirilaren 5eko Errege Dekretuan aurreikusi moduan. Honakoa dio:

Zure kontzientzia eta ohorearen izenean zin egin edo hitzematen duzu Leioako udaleko zinegotzi karguaren betebeharrak leial beteko dituzula Erregeari leialtasuna azalduz, eta Konstituzioa bete eta betearaziko duzula Estatuko oinarritzko arau gisa?

Arturo Aldecoa Ruiz jaunak honakoa erantzun du: Bai, zin egiten dut.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren Osoko Bilkurak aho batez erabaki du PPko zinegotziaren kargua Arturo Aldecoa Ruiz jaunari emango zaiola, eta ondoren aipatutako karguaz jabetu da.

Ondoren, alkate-udalburuak ongiatorria eman dio zinegotzi berriari, eta batzarrera sartu da, gainerako kideen artean duen jesarlekuan eserita.

**3.- TALDE POLITIKOEN ERAKETAREN ETA TALDE POLITIKO BAKOITZEKO BOZERAMAILEEN ETA ORDEZKOEN HAUTAKETAREN BERRI EMATEA:** Ondoren, alkate-udalburuak udal honetako talde politikoen eraketa, taldeetako kideak eta talde politikotako bozeramaile eta ordezkoen izendapena jakinarazi ditu. Hona hemen, zehatz-mehatz:

Udal honetako kideak diren honako pertsona hauek eratzen dute **EUSKO ALDERDI JELTZALEA – PARTIDO NACIONALISTA VASCO (EAJ/PNV)** talde politikoa:

Eneko Arruebarrena Elizondo

Jesús Bilbao Curiel

Ainara Urbietta Bergara

Beatriz Resa Bardeci

Iñaki Goikoetxea Gordo

M<sup>a</sup> Carmen Urbietta González

Jon Loizaga Cayero

Jon Peli Lazkano Alzaga

Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta

Ainara Guzmán Urrutia

Agerrarazi da **Jesús Bilbao Curiel** jauna izendatu dela **talde honetako bozeramaile**, eta bere ordezkoak, ondoz ondoko ordena honi jarraituz, honakoak:

Ainara Urbietta Bergara

Beatriz Resa Bardeci

Iñaki Goikoetxea Gordo

M<sup>a</sup> Carmen Urbietta González



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Jon Loizaga Cayero  
Jon Peli Lazkano Alzaga  
Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta  
Ainara Guzmán Urrutia

Udal honetako kideak diren honako pertsona hauek eratzen dute **PARTIDO SOCIALISTA DE EUSKADI – EUSKADIKO EZKERRA** talde politikoa:

José Manuel Toledo Cañamero  
Elsa López de Torre Campo  
Luis M<sup>a</sup> Pérez Pérez  
Pilar Grados García  
J. Alfonso López Arevalillo  
Nekane Jiménez Fernández

Agerrarazi da **José Manuel Toledo Cañamero jauna** izendatu dela **talde honetako bozeramaile**, eta bere ordezkioak, ondoz ondoko ordena honi jarraituz, honakoak:

Elsa López de Torre Campo  
Luis M<sup>a</sup> Pérez Pérez  
Pilar Grados García  
J. Alfonso López Arevalillo  
Nekane Jiménez Fernández

Arturo Aldecoa Ruiz zinegotzia karguaz jabetu ondoren, udal honetako kideak diren honako pertsona hauek eratzen dute **ALDERDI POPULARRA** talde politikoa:

Xabier Olabarrieta Arnaiz  
Arturo Aldecoa Ruiz  
Fernando Pinto Palacios

Agerrarazi da **Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna** izendatu dela **talde honetako bozeramaile**, eta bere ordezkioak, Arturo Aldecoa Ruiz eta Fernando Pinto Palacios jaunak, hurrenez hurren.

Udal honetako kideak diren honako pertsona hauek eratzen dute **EZKER BATUA-BERDEAK** talde politikoa:

Daniel Herrera Torrecilla  
Isabel García García

Agerrarazi da **Daniel Herrera Torrecilla jauna** izendatu dela **talde honetako bozeramaile**, eta bere ordezkioa, Isabel García García andrea.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkura jakinaren gainean geratu da eta aho batez onartu du talde politikoen eraketa, taldeetako kideak eta talde politikoetako bozeramaileen izendapena, deskribatu den bezala.

**4.- OSOKO BILKURAREN BATZARREN ALDIZKAKOTASUNA:** Ondoren, alkate-udalburuak proposatu du ohiko batzarrak hilabeteko aldizkakotasunaz egin daitezela normalean, hil bakoitzeko azken ostegunean, arratsaldeko 19:00etan, jaieguna ez bada eta beharrezana egotekotan Alkatetza-Udalburutzak bilera beste egun batean egitea komeni dela



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

erabakitzen ez badu; horretarako, ez da baliagarria izango abuztua, udaleko kide anitzeko organo guztietarako ere ez dela baliagarri izango.

Aparteko batzarrei eta premiazko aparteko batzarrei dagokienez, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legearen 46. artikuluan eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko Araudiaren 78. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitako kasuetan egingo dira.

### OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak aho batez erabaki du onetsi egingo dela Alkatetzak Osoko bilkuraren batzarren aldirkakotasunari buruz egin duen proposamena, deskribatu den bezala.

#### **5.- INFORMAZIO BATZORDE IRAUNKORRAK SORTU ETA ERATZEA:**

EAJ-PNVko **Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Adierazi du arloen konfiguraziotik beretik eta bertako kideetatik harantz, uste duela talde politiko guztiek badakitela nola eratu zen udala 2007ko ekainaren 16an, eta zer gertatu den egun horretatik hasi eta gaur arte.

Azaldu du, gauzak horrela, gehienen gutxiengo honetan edo, beste modu batean esanda, gutxiengoen gehiengo honetan, 30 asteguneko epea dagoenez gobernua eratzeko osoko bilkura egiteko, Alderdi Jeltzalearen asmoa ez dela gutxiengoko gobernua izatea, baizik eta gehiengoko gobernua izatea, eta denbora eman dute hori lortzen. Hala ere, gaur arte ezinezkoa izan da hori lortzea eta, beraz, Batzordeak, Burutzak eta Zinegotzi eskuordetuak sortzeko proposamenak behin-behinekotasun asmoz sortu dira.

Aipatu du, funtsean, sei informazio batzorde iraunkorreko proposamena egin dela. Bederatzi kidek osatuko lituzkete eta, osoko bilkurako gehiengoaren proportzio ordena kontuan hartuta, EAJ-PNVren lau ordezkari, PSE-EEren hiru, PPren bat eta EB-Bren ordezkari bat izango lirarteke kideak. Halaber, Ekonomi Sustapena, Prestakuntza eta Enplegua eta Tokiko Agenda 21 izeneko batzorde berezia ere eratu da, aurreko agintaldian Agenda 21eko Batzorde Bereziak zeukan osaera berarekin eta sei kidek eratuta (alkatea izango da burua, eta EAJ-PNVko kide bi, horietako bat taldearen bozeramailea dela eta PSE-EE eta EB-B talde politikoetako bozeramaileak izango dira kideak).

Adierazi du Batzorde batzuen batzarrak egiteko egunak aldatu direla, udaleko alderdietako bozeramaile batzuen eskaerari erantzunez, batzorde zehatzen batera joan ahal izateko. Horren ondorioz sortu da batzordeetarako egin den banaketa.

Ondorioz, Alkatetzak, Informazio Batzorde Iraunkorrek sortzeari dagokionez, honako hauek sortzea proposatu du:

- Hirigintza eta Etxebizitza; Obrak eta Zerbitzuak; Mugikortasuna eta Ingurumena.
- Barne Araubidea.
- Ogasun, Ondare eta Kontuen Batzorde Berezia.
- Kultura, Kirolak eta Gazteria.
- Hezkuntza eta Hizkuntza Politika.
- Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoa



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Era berean, Ekonomi Sustapena, Prestakuntza eta Enplegua eta Tokiko Agenda 21 Batzorde Berezia sortzea proposatu du.

Informazio Batzorde Iraunkorrei dagokienez, 9 kidek osa ditzatela proposatu da; honakoa izango litzateke banaketa:

- Eusko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco: 4 zinegotzi.
- Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra: 3 zinegotzi
- Alderdi Popularra: Zinegotzi 1.
- Ezker Batua - Berdeak: Zinegotzi 1.

Ekonomi Sustapena, Prestakuntza eta Enplegua eta Tokiko Agenda 21 Batzorde Bereziari dagokionez, 6 kidek osa dezatela proposatu da; honakoa izango litzateke banaketa:

Batzordeburua: Alkatea.

Batzordekideak:

- Eusko Alderdi Jeltzalea - Partido Nacionalista Vasco: 2 zinegotzi, horietako bat taldearen bozeramailea dela.
- Partido Socialista de Euskadi – Euskadiko Ezkerra: Zinegotzi bat, taldearen bozeramailea.
- Alderdi Popularra: Zinegotzi bat, taldearen bozeramailea.
- Ezker Batua - Berdeak: Zinegotzi bat, taldearen bozeramailea.

Informazio Batzorde Iraunkorrek hilean behin egingo dira gutxienez, Batzorde bakoitzeko buruak horretarako deialdia egin ondoren.

Horrenbestez, honakoa izango da Informazio Batzorde Iraunkorren eraketa:

### **1.- HIRIGINTZA ETA ETXEBIZITZA; OBRA ETA ZERBITZU; MUGIKORTASUN ETA INGURUMEN BATZORDEA:**

**Batzordeburua:** Jesús Bilbao Curiel, EAJ-PNVkoa. (Ordezkoa: M<sup>a</sup> Carmen Urbieta González, EAJ-PNVkoa)

**Batzordekideak:** M<sup>a</sup> Carmen Urbieta González, EAJ-PNVkoa.  
Ainara Urbieta Bergara, EAJ-PNVkoa  
Iñaki Goikoetxea Gordo, EAJ-PNVkoa  
José Manuel Toledo Cañamero, PSE-EEkoa  
Luis M<sup>a</sup> Pérez Pérez, PSE-EEkoa  
Alfonso López Arevalillo, PSE-EEkoa  
Xabier Olabarrieta Arnaiz, PPkoa  
Daniel Herrera Torrecilla, EB-Bkoa

Ondoren batzordekideen ordezkoak izendatu dira, ordena bereizi gabe:

Jon Peli Lazkano Alzaga, EAJ-PNVkoa  
Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta, EAJ-PNVkoa  
Jon Loizaga Cayero, EAJ-PNVkoa  
Beatriz Resa Bardeci, EAJ-PNVkoa  
Ainara Guzman Urrutia, EAJ-PNVkoa  
Elsa López de Torre Campo, PSE-EEkoa  
Pilar Grados García, PSE-EEkoa



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Nekane Jiménez Fernández, PSE-EEkoa  
Fernando Pinto Palacios, PPkoa  
Arturo Aldecoa Ruiz, PPkoa  
Isabel García García, EB-Bkoa

**Batzarra egiteko eguna:** Asteartea, 18:00etan.

## **2.- BARNE ARAUBIDEKO BATZORDEA**

**Batzordeburua:** M<sup>a</sup> Carmen Urbietta González, EAJ-PNVkoa (Ordezkoa: Iñaki Goikoetxea Gordo, EAJ-PNVkoa)

**Batzordekideak:** Iñaki Goikoetxea Gordo, EAJ-PNVkoa.  
Jesús Bilbao Curiel, EAJ-PNVkoa  
Jon Loizaga Cayero, EAJ-PNVkoa  
Luis María Pérez Pérez, PSE-EEkoa  
José Manuel Toledo Cañamero, PSE-EEkoa  
Alfonso López Arevalillo, PSE-EEkoa  
Arturo Aldecoa Ruiz, PPkoa  
Daniel Herrera Torrecilla, EB-Bkoa

Ondoren batzordekideen ordezkoak izendatu dira, ordena bereizi gabe:

Beatriz Resa Bardeci, EAJ-PNVkoa  
Jon Peli Lazkano Alzaga, EAJ-PNVkoa  
Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta, EAJ-PNVkoa  
Ainara Urbietta Bergara, EAJ-PNVkoa.  
Ainara Guzman Urrutia, EAJ-PNVkoa.  
Pilar Grados García, PSE-EEkoa  
Nekane Jiménez Fernández, PSE-EEkoa  
Elsa López de Torre Campo, PSE-EEkoa  
Xabier Olabarrieta Arnaiz, PPkoa  
Fernando Pinto Palacios, PPkoa  
Isabel García García, EB-Bkoa

**Batzarra egiteko eguna:** Asteartea, 19:00etan.

## **3.- OGASUN, ONDARE ETA KONTUEN BATZORDE BEREZIA**

**Batzordeburua:** Iñaki Goikoetxea Gordo, EAJ-PNVkoa (Ordezkoa: Beatriz Resa Bardeci, EAJ-PNVkoa)

**Batzordekideak:** M<sup>a</sup> Carmen Urbietta González, EAJ-PNVkoa.  
Beatriz Resa Bardeci, EAJ-PNVkoa  
Jon Loizaga Cayero, EAJ-PNVkoa  
Alfonso López Arevalillo, PSE-EEkoa  
Luis María Pérez Pérez, PSE-EEkoa  
José Manuel Toledo Cañamero, PSE-EEkoa  
Arturo Aldecoa Ruiz, PPkoa  
Daniel Herrera Torrecilla, EB-Bkoa

Ondoren batzordekideen ordezkoak izendatu dira, ordena bereizi gabe:

Ainara Guzman Urrutia, EAJ-PNVkoa



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Jon Peli Lazkano Alzaga, EAJ-PNVkoa  
Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta, EAJ-PNVkoa  
Ainara Urbietta Bergara, EAJ-PNVkoa  
Jesús Bilbao Curiel, EAJ-PNVkoa  
Nekane Jiménez Fernández, PSE-EEkoa  
Elsa López de Torre Campo, PSE-EEkoa  
Pilar Grados García, PSE-EEkoa  
Xabier Olabarrieta Arnaiz, PPkoa  
Fernando Pinto Palacios, PPkoa  
Isabel García García, EB-Bkoa

**Batzarra egiteko eguna:** Asteartea, 19:30ean.

#### **4.- KULTURA, KIROLAK ETA GAZTERIA BATZORDEA**

**Batzordeburua:** Ainara Urbietta Bergara, EAJ-PNVkoa (Ordezkoa: Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta, EAJ-PNVkoa)

**Batzordekideak:** Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta, EAJ-PNVkoa.

Jon Peli Lazkano Alzaga, EAJ-PNVkoa  
Beatriz Resa Bardeci, EAJ-PNVkoa  
Nekane Jiménez Fernández, PSE-EEkoa  
Pilar Grados García, PSE-EEkoa  
Elsa López de Torre Campo, PSE-EEkoa  
Xabier Olabarrieta Arnaiz, PPkoa  
Isabel García García, EB-Bkoa

Ondoren batzordekideen ordezkoak izendatu dira, ordena bereizi gabe:

Jesús Bilbao Curiel, EAJ-PNVkoa  
Iñaki Goikoetxea Gordo, EAJ-PNVkoa  
Jon Loizaga Cayero, EAJ-PNVkoa  
M<sup>a</sup> Carmen Urbietta González, EAJ-PNVkoa  
Ainara Guzmán Urrutia, EAJ-PNVkoa  
José Manuel Toledo Cañamero, PSE-EEkoa  
Luis María Pérez Pérez, PSE-EEkoa  
Alfonso López Arevalillo, PSE-EEkoa  
Fernando Pinto Palacios, PPkoa  
Arturo Aldecoa Ruiz, PPkoa  
Daniel Herrera Torrecilla, EB-Bkoa

**Batzarra egiteko eguna:** Asteazkena, 18:00etan.

#### **5.- HEZKUNTZA ETA HIZKUNTZA POLITIKAKO BATZORDEA**

**Batzordeburua:** Jon Peli Lazkano Alzaga, EAJ-PNVkoa (Ordezkoa: Ainara Guzmán Urrutia, EAJ-PNVkoa)

**Batzordekideak:** Ainara Guzmán Urrutia, EAJ-PNVkoa.

Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta, EAJ-PNVkoa  
Ainara Urbietta Bergara, EAJ-PNVkoa  
Elsa López de Torre Campos, PSE-EEkoa  
Nekane Jiménez Fernández, PSE-EEkoa



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Pilar Grados García, PSE-EEkoa  
Fernando Pinto Palacios, PPkoa  
Isabel García García, EB-Bkoa

Ondoren batzordekideen ordezkokak izendatu dira, ordena bereizi gabe:  
M<sup>a</sup> Carmen Urbieto González, EAJ-PNVkoa  
Iñaki Goikoetxea Gordo, EAJ-PNVkoa  
Beatriz Resa Bardeci, EAJ-PNVkoa  
Jesús Bilbao Curiel, EAJ-PNVkoa  
Jon Loizaga Cayero, EAJ-PNVkoa  
Luis María Pérez Pérez, PSE-EEkoa  
Alfonso López Arevalillo, PSE-EEkoa  
José Manuel Toledo Cañamero, PSE-EEkoa  
Arturo Aldecoa Ruiz, PPkoa  
Xabier Olabarrieta Arnaiz, PPkoa  
Daniel Herrera Torrecilla, EB-Bkoa

**Batzarra egiteko eguna:** Asteazkena, 19:00etan.

#### **6.- GIZARTE EKINTZA, OSASUN ETA KONTSUMOKO BATZORDEA**

**Batzordeburua:** Beatriz Resa Bardeci, EAJ-PNVkoa (Ordezkoa: Ainara Guzmán Urrutia, EAJ-PNVkoa)

**Batzordekideak:** Ainara Guzman Urrutia, EAJ-PNVkoa.  
Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta, EAJ-PNVkoa  
Ainara Urbieto Bergara, EAJ-PNVkoa  
Pilar Grados García, PSE-EEkoa  
Elsa López de Torre Campo, PSE-EEkoa  
Nekane Jiménez Fernández, PSE-EEkoa  
Fernando Pinto Palacios, PPkoa  
Isabel García García, EB-Bkoa

Ondoren batzordekideen ordezkokak izendatu dira, ordena bereizi gabe:  
M<sup>a</sup> Carmen Urbieto González, EAJ-PNVkoa  
Iñaki Goikoetxea Gordo, EAJ-PNVkoa  
Jon Peli Lazkano Alzaga, EAJ-PNVkoa  
Jesús Bilbao Curiel, EAJ-PNVkoa  
Jon Loizaga Cayero, EAJ-PNVkoa  
Alfonso López Arevalillo, PSE-EEkoa  
José Manuel Toledo Cañamero, PSE-EEkoa  
Luis María Pérez Pérez, PSE-EEkoa  
Arturo Aldecoa Ruiz, PPkoa  
Xabier Olabarrieta Arnaiz, PPkoa  
Daniel Herrera Torrecilla, EB-Bkoa

**Batzarra egiteko eguna:** Asteazkena, 19:30ean.

Honakoa izango da Batzorde Bereziaren osaera:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

## **EKONOMI SUSTAPENA, PRESTAKUNTZA ETA ENPLEGUA ETA TOKIKO AGENDA 21 BATZORDE BEREZIA**

**Batzordeburua:** Eneko Arruebarrena Elizondo, EAJ-PNVkoa.

**Batzordekideak:** Jon Loizaga Cayero, EAJ-PNVkoa.  
Jesús Bilbao Curiel, EAJ-PNVkoa  
José Manuel Toledo Cañamero, PSE-EEkoa  
Xabier Olabarrieta Arnaiz, PPkoa  
Daniel Herrera Torrecilla, EB-Bkoa

**Idazkari eskuordetua:** Leire Pertika Lopategi.

Ondoren, honakoak proposatu dira batzordekideen ordezeko izendatzeko:  
Jesús Bilbao Curiel, EAJ-PNVkoa  
Iñaki Goikoetxea Gordo, EAJ-PNVkoa  
M<sup>a</sup> Carmen Urbieto González, EAJ-PNVkoa  
Luis María Pérez Pérez, PSE-EEkoa  
Arturo Aldecoa Ruiz, PPkoa  
Isabel García García, EB-Bkoa

**Batzarra egiteko eguna:** Asteartea, 19:00etan, Barne Araubideko Informazio Batzordearen bilerarik ez badago eta beharrezkotzat jotzen bada, Batzorde horretako buruak horretarako deialdia egin ondoren.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkurak aho batez erabaki du onetsi egingo dela alkate-udalburuak Informazio Batzorde Iraunkorren kopuru, izendapen eta ordutegiari buruz eta Ekonomi Sustapena, Prestakuntza eta Enplegua eta Tokiko Agenda 21 Batzorde Bereziari buruz egindako proposamena, arestian agerrarazi den bezala. Era berean, onetsi egingo da goian adierazitako zinegotzien esleipena.

### **6.- UDALBATZAREN ORDEZKARIAK IZENDATZEA OSOKO BILKURAREN ESKUMENEKOAK DIREN KIDE ANITZEKO ORGANOETAN:**

EAJ-PNVko **Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak honakoa adierazi du:  
Azaldu du, aurreko puntuan esan duen bezala, gobernu ituna egiteko aurrerapen guztietan, proposamenak baliagarriak izango direla udal gobernu bera burutzeko.

Horri dagokionez, alkate-udalburuak, osoko bilkuraren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetarako ordezkarien izendapenari buruz duen proposamenaren berri eman du. Hona hemen:

*“- SOINU ATADIA FUNDAZIOAREN ZUZENDARITZA KONTSEILUA:  
Bertako estatutuetan xedatutakoa betez, alkate-udalburuak Jon Peli Lazkano Alzaga zinegotziari eskuordetu dio burutza, eta EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo izendatu du ordezeko. Hala ere, José Ignacio Sarria Landa jaunak izango du izatezko burutza, eta jarraian azaldutako kideak izango dira kontseilukideak:*



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

*EAJ/PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jauna eta Ainara Guzmán Urrutia andrea (ordezkoa)*

*PSE-EEko Elsa López de Torre Campo andrea eta Pilar Grados García andrea (ordezkoa)*

*PPko Arturo Aldecoa Ruiz jauna eta Fernando Pinto Palacios jauna (ordezkoa)*

*EB-Bko Isabel García García andrea eta Daniel Herrera Torrecilla jauna José Ignacio Sarria Landa jn.  
Emma Jiménez de Achúcarro and.  
Moisés Egaña Azpeitia. jn*

*- EUSKARAREN ERAKUNDEA ERAKUNDE AUTONOMOAREN ZUZENDARITZA KONTSEILUA. Bertako estatutuetan xedatutakoa betez, alkate-udalburuak Jon Peli Lazkano Alzaga mahaikide zinegotziari eskuordetu dio burutza, eta EAJ-PNVko Ainara Guzmán Urrutia izendatu du ordezko. Jarraian azaldutako kideak izango dira kontseilukideak:*

*PSE-EEko Pilar Grados García andrea eta Elsa López de Torre Campo andrea (ordezkoa)*

*PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna eta Fernando Pinto Palacios jauna (ordezkoa)*

*EB-Bko Daniel Herrera Torrecilla jauna eta Isabel García García andrea (ordezkoa)*

*- BIZKAIKO GARRAIO PARTZUERGOA: EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jauna izendatzea proposatu da.*

*- BILBAO-BIZKAIA UR PARTZUERGOA: EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jauna (ordezkoa: M<sup>a</sup>. Carmen Urbietta Gonzalez and.) eta PSE-EEko José Manuel Toledo Cañamero jauna (ordezkoa: José Alfonso López Arevalillo jn.) izendatzea proposatu da.*

*- BILBAO METRÓPOLI 30: PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jauna izendatzea proposatu da.*

*- KONPENTSAZIO BATZAK: EB-Bko Daniel Herrera Torrecilla jauna izendatzea proposatu da.*

*- MENDIBILE JAUREGIA ELKARTEA: EAJ-PNVko Eneko Arruebarrena Elizondo alkate jauna izendatzea proposatu da.*

## OSOKO BILKURAREN ERABAKIA

Udalaren osoko bilkurak aho batez erabaki du onetsi egingo dela alkate-udalburuak osoko bilkuraren eskumenekoak diren kide anitzeko organoetan ordezkariak izendatzeko egin duen proposamena, deskribatu den bezala.

**PPko Xabier Olabarrieta Arnaiz jaunak** honakoa adierazi du:

Bere talde politikoaren botoa azaltzeko hitz egin nahi duela adierazi du. Azaldu du euren ustez ekimen edo planteamendu egokia dela udalaz gaindiko organoetan ordezkarietza edo partaidetza izateko aukera ematea udalean ordezkarietza duten talde guztiei, eta horrela azaldu izan dute aurreko agintaldien hasieran ere. Baina bere garaian ez zitzaizen jaramonik egin euren eskabideei eta, nabaria denez, orain egoera ezberdina da.



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

Hala ere, euren ustez oso garrantzitsua da talde guztiei udalaz gaindiko erakundeetan ordezkarietza edo partaidetza izateko aukera emateko ekimen hori.

## **7.- ALKATEORDEAK, TOKIKO GOBERNU BATZARREKO KIDEAK ETA INFORMAZIO BATZORDEETAKO BURUAK IZENDATZEARI BURUZ ALKATEAK EGINDAKO EBAZPENEN ETA ALKATETZAK EGIN DITUEN ESKUORDETZEEN BERRI EMATEA:**

### **644/07 dekretua**

Hauteskunde-legeetan eta Toki Araubidearen berezko legeetan ezarritakoari jarraituz, Leioako Elizatearen Udaleko alkate izateko izendatu ninduten 2007ko ekainaren 16an. Legerian bertan ezarrita dago 30 eguneko epean aparteko osoko bilkurarako deialdia egin behar dela, Udalbatzaren antolaketa gaiak eta funtzionamendurako bestelako beharrezko gaiak erabakitzeke.

Hala eta guztiz ere, udalak oinarritzko egitura izan behar du dagozkion eskumenak garatzen eta berezko zaizkion betebeharrak burutzen jarraitzeko. Gauzak horrela, 2002ko martxoaren 4ko erabakiaren bitartez, dedikazio eskusiboaren ordainsariak onetsi ziren, urte horretako urtariletik aurrera izan zitzaizkion ondoreak. Horrela, alderdi politikoen 2001eko irailaren 27an erabakitako ordainsari sistema eta irizpideak hartu ziren, EUDELeko Batzorde Eragileak 2001eko ekainaren 7ko batzarrean aurkeztu zuen proposamena oinarri hartuta. Aipatutako akordioan alkatearen eta alkateordeen lanpostuei dagozkien ordainsariak zehaztu ziren.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.2 artikulua alkateari esleitzen dio alkateordeak izendatzeko eskumena eta, atal honetan, gure ustez beharrezkoa da dedikazio eskusiboko alkateorde bi izendatzea, aurreko legegintzaldian bezala, udal eskumenak behar bezala kudeatu ahal izan daitezkeen.

Arestian azaldutako guztia kontuan hartuta eta aipatu den 7/1985 Legearen 21.2 artikuluan xedatutakoari jarraituz, **HONEN BITARTEZ** honakoa xedatu dut:

**LEHENENGOA:** 2007ko ekainaren 16an Leioako Udala eratzeko batzarrean, Eneko Arruebarrena Elizondo izendatu zuten alkate-udalburu, eta honek kargua onartu zuen. Beraz, egun horretatik aurrera kargu hori burutzen dabil, dedikazio eskusiboan, gaur egun lanpostu horrek esleituta dituen ordainsariekin, 239/07 dekretuaren arabera.

**BIGARRENA:** Jesús Bilbao Curiel jauna izendatuko da udal honetako lehenengo alkateorde, alkatea ordeztu dezan ez badago, gaixorik badago edo bere eskumenak burutzea eragozten dion eragozpenik badu, bai eta Alkatetza hutsik dagoenean ere, alkate berria karguaz jabetu arte. Hirigintza eta Etxebizitza; Obra eta Zerbitzu; Mugikortasun eta Ingurumen arloko ardura emango zaio, dedikazio eskusiboan. 2007ko abuztuaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak, eta beraz, bidezkoa da Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta ematea. Gaur egun lanpostu horrek esleituta dituen ordainsariak izango ditu, 239/07 dekretuaren arabera.

**HIRUGARRENA:** Ainara Urbieta Bergara andrea izendatuko da bigarren alkateorde, alkatea ordeztu dezan lehenengo alkateordea ez badago, gaixorik badago edo bere eskumenak burutzea eragozten dion eragozpenik badu, bai eta Alkatetza hutsik



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

dagoenean ere, alkate berria karguaz jabetu arte. Kultura, Kirolak eta Gazteria Arloko ardura eta arlo horren eta Hezkuntza eta Hizkuntza Politika nahiz Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumo arloen ardura emango zaio, dedikazio eskusiboan. 2007ko abuztuaren 1etik aurrera izango ditu ondoreak, eta beraz, bidezkoa da Gizarte Segurantzaren Araubide Orokorrean alta ematea. Gaur egun lanpostu horrek esleituta dituen ordainsariak izango ditu, 239/07 dekretuaren arabera.

### **645/07 dekretua**

Toki Araubideari buruzko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.2 artikulua alkateari esleitzen dio alkateordeak izendatzeko eskumena. Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 1986ko azaroaren 28ko Araudiaren 46-48 artikuluek ere gauza bera adierazten dute.

Beste alde batetik, gorago aipatu den apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 23. artikulua eta aipatutako Araudiaren 52 eta 53. artikuluek azpimarratu egiten dute Tokiko Gobernu Batzarra, bertako kideak izendatzeko modua arautuz.

Amaitzeko, Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoari buruzko 1986ko azaroaren 28ko Araudiaren 38. artikulua eta 43 eta 44. artikuluek adierazten dute Alkatetzari dagokiola Informazio Batzordeetako burutzak eta, hala badagokio, zerbitzuko ordezkari bereziak izendatzea.

Arestian azaldutako guztia kontuan hartuta eta aipatutako araei jarraituz, HONEN BITARTEZ honakoa xedatu dut:

### **LEHENENGOA:**

#### **a) Tokiko Gobernu Batzarreko kideen izendapena:**

Honako zinegotzi hauek eratuko dute Alkatetza hau buru duen Tokiko Gobernu Batzarra:

Jesús Bilbao Curiel jn.  
Ainara Urbieta Bergara and.  
M<sup>a</sup> Carmen Urbieta González and.  
Iñaki Goikoetxea Gordo jn.  
Jon Peli Lazkano Alzaga jn.  
Beatriz Resa Bardeci and.  
Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta jn.

b) Tokiko Gobernu Batzarrak alkateari bere eginbeharrak burutzean etengabeko laguntza emateko ardura izango du esleituta.

c) Tokiko Gobernu Batzarrak astearteetan egingo du batzarra, 9:30ean, alkateak Tokiko Gobernu Batzarraren iritzia jakin edo bere laguntza eskatu nahi duenean, alkateak aurretiaz deialdia eginda.

### **BIGARRENA:**

Alkateordeen izendapenak: Jarraian azaldutakoak izendatu ditut Alkatetza hau ordeztzeko nire eginkizun guztietan, ez banago, gaixorik banago edo nire eskumenak burutzea eragozten didan eragozpenik badut, bai eta Alkatetza hutsik dagoenean ere, alkate berria karguaz jabetu arte, 644/07 dekretuan ezarritakoaren arabera:



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

1. ALKATEORDEA: Jesús Bilbao Curiel jn.
2. ALKATEORDEA: Ainara Urbieta Bergara and.

Izendatutakoen erantzukizunak eta dedikazioa, bai eta ordainsaria edo dagokien esleipen ekonomikoa ere, 239/07 eta 644/07 dekretuetan ezarritakoa izango dira.

### **HIRUGARRENA:**

#### a) Informazio Batzorde Iraunkorretako buruen izendapena:

Honako zinegotzi hauei eskuordetuko diet Informazio Batzorde Iraunkorren burutza eraginkorra:

- 1.- EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jaunari eta M<sup>a</sup> Carmen Urbieta González andreari (ordezkoa) Hirigintza eta Etxebizitza; Obra eta Zerbitzu; Mugikortasun eta Ingurumen Batzorderako.
- 2.- EAJ-PNVko Iñaki Goikoetxea Gordo jaunari eta Beatriz Resa Bardeci andreari (ordezkoa) Ogasun, Ondare eta Kontuen Batzorde Berezirako.
- 3.- EAJ-PNVko M<sup>a</sup> Carmen Urbieta González andreari eta Iñaki Goikoetxea Gordo jaunari (ordezkoa) Barne Araubideko Batzorderako.
- 4.- EAJ-PNVko Ainara Urbieta Bergara andreari eta Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta jaunari (ordezkoa) Kultura, Kirolak eta Gazteria Batzorderako.
- 5.- EAJ-PNVko Jon Peli Lazkano Alzaga jaunari eta Ainara Guzmán Urrutia andreari (ordezkoa) Hezkuntza eta Hizkuntza Politikako Batzorderako.
- 6.- EAJ-PNVko Beatriz Resa Bardeci andreari eta Ainara Guzmán Urrutia andreari (ordezkoa) Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumoko Batzorderako.

b) Ekonomi Sustapena, Prestakuntza eta Enplegua eta Tokiko Agenda 21 Batzorde Berezari dagokionez, Alkatetza izango da Burua, eta ordezkoa EAJ-PNVko Jesús Bilbao Curiel jauna izango da.

### **LAUGARRENA:**

#### Zerbitzuko ordezkari berezien izendapena:

\*Jon Peli Lazkano Alzaga jaunari eskuordetuko zaio Soinu Atadia Fundazio Publikoaren eta Euskararen Erakundea Erakunde Autonomoaren koordinazioa.

\*Iñaki Goikoetxea Gordo jaunari eskuordetuko zaizkio teknologia- ezarpenari dagozkion eskumenak. Eskuordetzea barne zuzendaritzan eta kudeaketan datza; hala ere, ez du ahalmenik edukiko gainerakoei eragiten dieten administrazio-egintzen bidez ebazteko; horrenbestez, eskuordetze horren zeregina modu arruntean Barne Araubideko Arloari lotuko zaio.

\*Juan Carlos Ibarra Aretxabaleta jaunari eskuordetuko zaizkio Kirol azpiarloari dagozkion eskumenak. Eskuordetzea barne zuzendaritzan eta kudeaketan datza: hala ere, ez du ahalmenik edukiko gainerakoei eragiten dieten administrazio-egintzen bidez ebazteko; horrenbestez, eskuordetze horren zeregina modu arruntean Kultura, Kirol eta Gazteria Arloari lotuko zaio.

\* Ainara Guzmán Urrutia andreari eskuordetuko zaizkio Emakumea eta Hirugarren Adina azpiarloari dagozkion eskumenak. Eskuordetzea barne zuzendaritzan eta kudeaketan datza: hala ere, ez du ahalmenik edukiko gainerakoei eragiten dieten administrazio-egintzen bidez ebazteko; horrenbestez, eskuordetze horren zeregina modu arruntean Gizarte Ekintza, Osasun eta Kontsumo Arloari lotuko zaio.

\* Jon Loizaga Cayero Urrutia jaunari eskuordetuko zaizkio Ekonomi Sustapena, Prestakuntza eta Enplegu garapenari dagozkion eskumenak. Eskuordetzea



LEIOA AYUNTAMIENTO  
ELIZATEKO DE LA ANTEIGLESIA  
UDALA DE LEIOA

BIZKAIA

barne zuzendaritzan eta kudeaketan datza: hala ere, ez du ahalmenik edukiko gainerakoei eragiten dieten administrazio-egintzen bidez ebazteko; horrenbestez, eskuordetze horren zeregina modu arruntean Ekonomi Sustapena, Prestakuntza eta Enplegua eta Tokiko Agenda 21 Batzorde Bereziari lotuko zaio.

\*Jesús Bilbao Curiel jaunari eskuordetuko zaizkio Tokiko Agenda 21en garapenari dagozkion eskumenak. Eskuordetzea barne zuzendaritzan eta kudeaketan datza: hala ere, ez du ahalmenik edukiko gainerakoei eragiten dieten administrazio-egintzen bidez ebazteko; horrenbestez, eskuordetze horren zeregina modu arruntean Ekonomi Sustapena, Prestakuntza eta Enplegua eta Tokiko Agenda 21 Batzorde Bereziari lotuko zaio.

EAJ-PNVko **Eneko Arruebarrena Elizondo** alkate jaunak honakoa adierazi du:

Azaldu du, ohitura den bezala eta ziurrenik talderen batek aipatuko duenez (berak ere baieztatu egin die bozeramaileei, eta bozeramaileren batek ere osoko bilkuran agerrarazteko eskatu dio), eta gainera bere ustez hau denez horretarako leku egokia, Gobernuaren akordioa egon zein ez, Gobernu Talde honek batzorde edo mahai bat sortu nahi duela Toki Karguaren Estatutua definitzeko, ez dela Oposizioaren Estatutua. Izan ere, beste batzuetan defenditu duen bezala, bere ustez beharrezkoa da akordioa lortzea Toki Karguaren eremuan, bai eta Barne funtzionamenduko araudi batean sartzea ere. Horrela, udal taldeek, badakite zer duten hauteskundeetarako zerrendak egiteko orduan, eta badakite zeintzuk izango diren Toki Karguaren Estatutuaren barruan sartzen diren udal taldeetako kideen dedikazio baldintzak, lan baldintzak, etab.

Amaitzeko adierazi du 644 eta 645 dekretuen edukia, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen Legean bertan ezarritakoaren arabera, horren guztiaren berri ematea baino ez dela baina, hala ere, PSE-EEko José Manuel Toledo Cañamero jaunak bozkatzekak ilusioa egiten ziola esan diola.

PSE-EEko **José Manuel Toledo Cañamero** jaunak honakoa adierazi du:

Bozkatzekotan, dekretuetako atal batzuk bereizita bozkatzeko eskatu nahi izan du. Aurreratu egin du baieztatu botoa emango litzaiokeela alkatearen izendapen eta dedikazioari, eta gainerako puntuetan abstenitu egingo liratekeela, behin-behineko gobernua eratu ahal izan dadin. Beraz, horrela bereiz daitekeen galdetu du.

Idazkariak jakinarazi du ezin dela bozketarik egin puntuak bereizita.

### **OSOKO BILKURAREN ERABAKIA**

Udalaren osoko bilkura alkate-udalburuak egindako izendapenen jakinaren gainean geratu da, deskribatu den bezala.

Eta arratsaldeko seiak eta berrogeita hamabost minutu direnean, Alkatetza-Udalburutzak ekitaldia bukatutzat eman du, eta Idazkaritza honi dagokion akta egiteko agindu dio, adostutako eran onetsi dena. Hori guztia ziurtatu dut idazkaria naizen honek.

O.E.  
ALKATEA

IDAZKARIA,5